



7. DINAMIKA. JOMUGAK ETA HELBURUAK: LANBIDE PROIEKTUA



| | |
|-------------------|---|
| HELBURUA | Eman beharreko pausoak planifikatzea |
| IRAUPENA | 45' (5' materiala banatzea eta ariketa azaltzea, 25' banakako lana eta 15' bateratze lana) |
| MATERIALAK | Idazteko materiala "NIRE LANBIDE PROIEKTUA" taula |
| GARAPENA | Ariketa dinamizatzeaz arduratzen denak ikasleei azaldu behar die oso garrantzitsua dela laneko helburu batzuk finkatzea eta eman beharreko pausoak horien arabera eta modu errealistan antolatzea, okerreko igurikimenik egon ez dadin. "NIRE LANBIDE PROIEKTUA" taula banatu (fitxa honen eranskina) eta adibideen bidez nola bete behar den azaldu behar da. Ikasleei taula banaka betetzeko beharrezko denbora eman ondoren, egindako lana taldeko gainerako kideekin bateratu behar da, errealitatearekin bat datorren ikusteko. |
| OHARRAK | <ul style="list-style-type: none"> ✓ Parte-hartzea ✓ Lanbide-errealitatea ezagutzea ✓ Desberdintasunak lehentasunei eta arazoiei dagokienez (generoa?) ✓ Talde barruko harremanak. |



NIRE LANBIDE PROIEKTUA

Hau da nire helburu profesionala...

Helburu profesional hori lortzeko, hauek dira nire **JOMUGAK**:

EPE LABURREAN (6 hilabete)

EPE ERTAINEAN (6 hilabete – 2 urte)

EPE LUZEAN (2 urtetik aurrera)

Nire helburua eta nire jomugak lortzeko, **HURRENGOA EGIN BEHAR DUT**

- 1.
- 2.
- 3.

Zer zailtasun aurki ditzaket? Gainditu ditzaket? Nola?



Debegesa

Debarreneko Garapen
Ekonomikorako Elkartea
Sociedad para el Desarrollo
Económico de Debarrena



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

bai
industriari!